

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

4262

AGINDUA, 2025eko irailaren 18koa, Segurtasuneko sailburuarena, Segurtasun Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia organismo autonomoko lan-kontratuko langileentzat gordetako lanpostuak baloratzeko batzordeko kideak izendatzen dituen.

Segurtasun Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia organismo autonomoko lan-kontratuko langileen hitzarmen kolektiboaren 9. artikulua bitartez, lan-kontratuko langileentzat gordetako lanpostuak baloratzeko batzordea sortu zen (jatorrian, Herrizaingo Sailaren eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia Erakunde Autonomoaren lan-kontratuko langileen hitzarmen kolektiboa; 2008ko apirilaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua, 73. zk.).

Segurtasun Sailean izandako antolamendu-aldaketak kontuan hartuta, balorazio-batzordearen osaera berria argitaratu behar da.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Honako hauek izendatzea aipatutako hitzarmenaren mendeko langileen lanpostuak baloratzeko batzordeko kide:

Administrazioaren ordezkariak:

Batzordeburua:

- Titularra: Giza Baliabideen zuzendaria.
- Ordezkoa: Segurtasuna Koordinatzeko zuzendaria.

Batzordekideak:

- Titularra: Baliabide Orokorren zuzendaria.
- Ordezkoa: Telekomunikazioak eta Sistema Informatikoak Kudeatzeko zuzendaria.
- Titularra: Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia.
- Ordezkoa: Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Administrazio eta Zerbitzuen zuzendaria.

– Titularra: langile-burua.

– Ordezkoa: Plangintza eta Langileen Kudeaketa Alorreko burua.

Batzordekide-idazkaria:

- Titularra: Mercedes Aldekoa García andrea.
- Ordezkoa: Mónica Basañez Zuazola andrea.

2025eko urriaren 9a, osteguna

Langileen ordezkariak:

- Titularra: Oscar García Fernández jauna.
- Ordezkoa: Endika Etxebarria Villafruela jauna.
- Titularra: Irantzu Aguirregoitia Martínez andrea.
- Ordezkoa: Lourdes Carrón Alcón andrea.
- Titularra: María José Tudanca Zallo andrea.
- Ordezkoa: Gonzalo López Arroyo jauna.
- Titularra: Garbiñe Ibáñez de Opakua Ormaetxebarria andrea.
- Ordezkoa: Elisa Pereda López andrea.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da Segurtasuneko sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Agindua, Segurtasun Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoko lan-kontratuko langileentzat gordetako lanpostuak baloratzeko batzordeko kideak izendatzen dituen.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 18a.

Segurtasuneko sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.